

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure enpresaren kasuan, bezeroekiko harremana ez da oso estua izango, beti ere, gure lana ez da publikoari begira baizik eta, zerbitzu bat eskaintzea aplikazio baten bitartez. Horretarako, zerbitzu automatizatu bat izango dugu, aplikazioaren bitartez. Bezeroek edozein zalantza izango balute, zerbitzu pertsonalizatu bat izango dute zalantza horiek argitzeko, adibidez: aplikazioa deskargatzeko arazoak, edo erreserbatzeko zalantzak...

Bezeroen artean zerbitzua zabaltzeko, bai udaletxeak eta bai enpresak sare sozial (Twitter, Facebook, Instagram...), komunikabide, eta publizitatearen bidez (autobus geltokietan, erakuslehoietan...) zabalduko dute. Halaber, bezeroak zerbitzuari lotuta egoteko, ez dugu ezer berezirik egingo, gure ustez hiritarren gehiengoa faltan botatzen duten zerbitzu bat delako.

Azkenik, noizean behin, bezeroei balorazio inkesta bat egiteko eskatuko zaie, beraien iritzi eta proposamen berriak ezagutzeko, horrela, aplikazioa hobetu ahal izango dugu.